

## Oñatiko EAJ-PNV: “EH Bilduren udal gobernuak aurkeztutako HAPOaren Aurrerakina ilusio gutxiko plana da, eta, zenbait esparrutan baita kezkagarria ere”

- **Hain zuzen udal gobernuak Plana diseinatzeko orduan izandako anbizio eta zorroztasun falta salatu du EAJ-PNVk eta Aurrerakina herritarrek behar bezala informatu gabe idatzi dela azpimarratu du.**
- **Era berean, udal taldeak Garay eta Korriuenaren aldeko apustua egin du eta aipatu biak nabarmendu ditu etorkizuneko aukera eremu gisa.**

Ia hiru urte igaro dira dagoeneko Oñatiko Udalak, EH Bilduren gobernu buru, herriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren idazketa lanak hasi zituenetik. Denbora tarte guzti horretan, udal gobernuak Aurrerakin dokumentu bat idatzi du, hain zuzen, plan berriaren hiri-eredua eta ildo estrategikoak planteatzeko. Aurrerakin hori 2020ko abuztuaren 12an argitaratu zen GAOn eta hiru hilabeteko epea zabaldu zen, zehazki azaroaren 13ra arte, Aurrerakinari iradokizunak egiteko.

Horrelako Plan batek herriaren eta herritarren etorkizunean duen garrantziaren jakitun, Oñatiko EAJ-PNVk iradokizun sorta zabala aurkeztu zuen eta “EH Bilduren gobernuak oraindik arrazoitutako erantzunik eman ez badigu ere, joan den maiatzaren 10ean egindako saio irekian gure proposamenetako bat bera ere Planean jaso ez dutela ondorioztatu ahal izan genuen”, adierazi du udal taldeak. “Honek, noski, kezkatu egiten gaitu. Asko kezkatzen gaituzte Udala hartzean dagoen irizpide eta helburu orokorrekin, gure iritzitan, hainbat gai oker planteatuta baitaude”, gaineratu du udal taldeak.

Gauzak horrela, EAJ-PNVk bere kezka adierazi du, bereziki hiru esparruri dagokionez: bizitzeko lurzoruaren esparrua, ekipamenduena, zehazki kultur eta kirolari lotutakoak, eta herritarren partaidetzarena.

Bizitzeko lurzoruaren esparruari erreparatuz, EAJ-PNVk iritzi du “akats handia dela datozen urteetako etxebizitzak Cegasa eta Eroski-Berazaon lurzoruetan kokatzea”. Lurzoru horiek leheneratzearen eta erabilera eta eraikigarritasun berriak ematearen aldekoa bada ere, udal taldeak azpimarratu du hori epe luzerako estrategia dela, bideragarritasun zaila dutelako (15-20 urte). “Beraz, bien bitartean, Oñatiko etxebizitzen eraikuntzarako beste irtenbide bat bilatu behar da. Horrela ez bada, non biziko dira gaur egungo gazteak eta urte horietan independizatu eta familia osatzen dutenak? HAPOak gaur egun planteatzen duenari jarraiki, Kasablanca, Kurtzekua eta San Martineko etxebizitzena bada beraien alternatiba bakarra, astakeria bat ordaindu beharko dute etxebizitza horiek eskuratzeko, prezioa asko igoko baita”, adierazi du udal taldeak. Horri lotuta, etxebizitza hutsen okupazioa aitzakia bezala erabiltzeak balio ez duela gaineratu du, okupazio hori ezin baita denboran zehar kudeatu edota programatu.

Era berean, EAJ-PNVrentzat sinesgaitza da Eroski-Berazaon 190 etxebizitza eraiki ahal izatea. “Azterketa zehatzago bat egingo balitz, ondorio horretara iritsiko ginateke. Izan ere, Natrako (Zahor) eremuan ezin da etxebizitzak egitea proposatu, zarata arazoak eta erabileren bateraezintasuna direla eta”, gaineratu du.

Ildo horretan, Oñatiko EAJ-PNVk Garayko lurzoruaren aldeko apustu irmoa egin du eta EH Bilduren udal gobernuak hori aintzat ez hartzea akats handia dela iritzi du. “Garay eremu oso garrantzitsua izan daiteke Oñatiko hiri-egitura osoan, eta aukera eta hobekuntza handiak ekarri ditzake herrira, besteak beste, hiri-sekuentziaren jarraitasun handiagoa erdigunetik Olakua eta San Lorentzo eremuetara, San Lorenzo eta Errekalde lotzen dituen tunela kentzea aire zabaleko conexioa egiteko (egun udalerriko puntu beltza),

edo dentsitate ertaineko bizitegi-garapena, babes ofizialeko etxebizitza-eskaintza zabalarekin (%75) eta ekipamenduekin, hala nola, etorkizuneko Oñatiko Musika Eskola berria.

Kirol ekipamenduei dagonionez, “ez da behar bezala aztertu, ezta eztabaideku ere, futbol zeliaaren behinbetiko kokalekuaren gaia”, adierazi du EAJk. “Gure iritziz, ez litzateke Korriuena futbol-zelairako aukera gisa baztertu behar, ondo komunikatuta dagoen eremua delako, gertukoak, eta, gainera, harmailak, aldagelak edota aparkalekua eraikitzeko aukera eskaintzen duelako” gehitu du.

Amaitzeko, Euskadiko Lurzoruan eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak jasotzen duenari jarraiki, Aurrerapena egin ostean, herritarrei dokumentuaren ulermenta erraztu ez zaiela salatu du EAJk. “Alde horretatik, ahanztura larria egon da EH Bilduren udal gobernuaren aldetik, oñatiarrei dokumentua ezagutzera emateko eta horren ulermenta errazteko”, adierazi du udal taldeak. Zer pasatzen da orain herritarrek iradokizunak egin nahi badituzte, ez zaielako gustatu maiatzaren 10eko saio irekian azaldu zaiena, behin erabakiak hartuta zeudenean? Ezin dute iradokizunik aurkeztu? Oraintxe bertan ez, horiek egiteko epea 2020ko azaroaren 13an amaitu baitzen, Aurrerakina azaltzeko bilera edo saio ireki bat ere egin gabe.

“Laburbilduz, EH Bilduren udal gobernuak asmo gutxiko Plan bat osatu du, nola edo ahala, gehiegi sakondu gabe eta zorroztasun gutxirekin eta hori kezkagarria eta aldi berean, etsigarria da”, amaitu du Oñatiko EAJ-PNVk.

## **EAJ-PNV de Oñati: “El Avance del PGOU presentado por el gobierno de EH Bildu es un plan poco ilusionante y en algunos aspectos preocupante”**

- **EAJ-PNV denuncia la falta de rigor y poca ambición del equipo de gobierno a la hora de elaborar el Plan y destaca que el Avance se ha redactado sin informar debidamente a la ciudadanía.**
- **Asimismo, el grupo municipal pone sobre la mesa sus apuestas y señala como nuevos ámbitos de oportunidad, entre otros, Garay y Korriuena.**

Han pasado ya casi 3 años desde que el Ayuntamiento de Oñati, con el gobierno de EH Bildu a la cabeza, inició la redacción del Plan General de Ordenación Urbana del municipio. En todo este tiempo, el gobierno local ha redactado un Avance donde ha planteado el modelo urbano y las líneas estratégicas del nuevo Plan, Avance que se publicó en el BOG el 12 de agosto de 2020, dando un plazo de tres meses, concretamente hasta el 13 de noviembre del mismo año, para hacer sugerencias al mismo.

Conscientes de la magnitud e importancia de un Plan como este, EAJ-PNV de Oñati presentó una amplia batería de sugerencias y “aunque todavía no hemos recibido una respuesta razonada por parte del gobierno de EH Bildu, en la sesión abierta al público que se realizó el pasado 10 de mayo pudimos deducir que ninguna de nuestras aportaciones han sido incorporadas al plan”, destaca el grupo municipal. “Esto, naturalmente, nos preocupa. Nos preocupan, y mucho, los criterios y objetivos generales que todo indica, se van a adoptar por parte del Ayuntamiento, ya que, a nuestro juicio, hay varios aspectos que se están planeando de forma equivocada”, ha añadido el grupo municipal.

De este modo, EAJ-PNV muestra su preocupación, especialmente en tres ámbitos: el ámbito de suelo residencial, el de los equipamientos, especialmente los culturales y deportivos y el de la participación ciudadana.

En cuanto al suelo residencial, **EAJ-PNV de Oñati considera “un gran error plantear que las viviendas de los próximos años estén en los suelos de Cegasa y Eroski-Berazao”**. Si bien es cierto que son suelos que hay que regenerar y dotarlos de nuevos usos y edificabilidades, “esa es una estrategia a largo plazo debido a su complicada viabilidad (al menos 15-20 años), por lo que, mientras tanto debemos de tener otra solución para las viviendas en Oñati”, señala el grupo municipal. “De no ser así, ¿dónde van a vivir las y los jóvenes de hoy y los que en esos años van a querer independizarse y formar familias? Si solo van a tener la alternativa de las pocas viviendas de Kasablanca, Kurtzekua y San Martín que plantea el PGOU actualmente, van a tener que pagar una barbaridad por acceder a ellas porque su precio se va a elevar mucho”. En este sentido, EAJ-PNV señala que no le vale la alusión a la ocupación de viviendas vacías, puesto que esa ocupación no es algo que se pueda gestionar ni programar en el tiempo.

Asimismo, **EAJ-PNV no considera creible que en Eroski-Berezao quepan 190 viviendas**. “Si se hiciese un estudio previo de más concreción se llegaría a esa conclusión. Porque desde luego no se pueden plantear viviendas en la zona de Natra (Zahor), por los problemas de ruido, e incompatibilidad de usos”, han señalado.

En esa misma línea, **el grupo municipal apuesta firmemente por el suelo de Garay** y cree que es un error por parte del gobierno de EH Bildu no tenerlo en cuenta. “Garay es una pieza que, si se desarrolla, jugará un papel muy importante en el conjunto de la estructura urbana de Oñati, aportando enormes oportunidades y mejoras, tales como una mayor continuidad a la secuencia urbana desde el centro a las

zonas de Olakua y San Lorenzo, la eliminación del tunel que conecta San Lorenzo y Errekalde (punto negro del municipio) para hacer una conexión a cielo abierto, o un desarrollo residencial de densidad media con una importante oferta de vivienda protegida (75%) y equipamientos, como lo puede ser la futura Musika Eskola.

En cuanto a los equipamientos deportivos, EAJ-PNV señala que no se ha analizado y debatido suficientemente la solución de la ubicación definitiva del campo de fútbol. “En nuestra opinión no se debería de descartar Korriuena como una opción para el campo de futbol, puesto que está bien comunicada, es cercana y permite hacer unas instalaciones con cierta holgura para graderíos, vestuarios, aparcamientos...”, ha señalado EAJ-PNV.

Por último, EAJ-PNV denuncia que la participación ciudadana no ha facilitado, tal y como establece la ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco, la comprensión del documento una vez que el Avance ha sido realizado. “En este aspecto ha habido un grave olvido a la hora de hacer conocer el documento, y a la hora de facilitar su comprensión” señala EAJ-PNV. ¿Y si hay personas que quieren sugerir cosas porque no les ha gustado lo que se les ha explicado en la sesión abierta del 10 de mayo, una vez que las decisiones estaban ya tomadas? ¿Ya no pueden hacer sugerencias? Ahora mismo no, porque el periodo para realizarlas finalizó el 13 de noviembre de 2020, sin la realización de una reunión ni sesión abierta para su exposición y explicación.

“En resumen, el gobierno de EH Bildu ha realizado un Plan poco ambicioso, sin profundizar y sobre la marcha, con poco rigor, lo cual es preocupante a la vez que decepcionante”.